

Inbertsioak Inversiones



Erronka komertzial eta logistiko berriak lortzeko proiektuak Proyectos para lograr nuevos retos comerciales y logísticos

— 2013an, Portuko Agintaritzak 38,4 milioi euro inbertitu ditu. 2014an, 54,7 milioi inbertituko ditu proiektuak amaitzeko, dagoeneko martxan dauden obrak bukatzeko eta erronka berriak martxan jartzeko. Horien bidez lortu nahi du portuko azpiegiturak hobetzea, gaur egungo trafikoak finkatzea eta Bilboko Portuarentzat trafiko berriak lortzeko aukerak hobetzea

— En 2013, la Autoridad Portuaria ha invertido 38,4 millones de euros. En 2014 serán 54,7 millones los destinados a finalizar proyectos, a continuar obras ya en marcha y a iniciar nuevos retos con el fin de mejorar las infraestructuras portuarias, consolidando los tráficos actuales y mejorando las opciones de conseguir nuevos tráficos para el Puerto de Bilbao.

Portu Agintaritzaren inbertsioak Inversiones de la Autoridad Portuaria

IBUK-Corredor Intermodal" proiektua, TEN-T 2011 deialdia
Proyecto "IBUK-Corredor Intermodal", convocatoria TEN-T 2011



Pancorboko TELOF

Irailean hasi ziren Bilboko Portua Pancorbon (Burgos) eraikitzen ari den Tren Terminal Logistikoaren (TELOF) tren-konexioen eta zerbitzu-bideen obrak, 500.000 metro karratu inguruko azalera duen BilbaoPort industrialdearen hirigintza-garapen integralaren barruan. Aurreikuspenen arabera, lehen fase honetako azpiegitura-obrak 2014aren amaieran bukatuko dira, eta instalatutako segurtasun-ekipoen funtzionamendu-probak 2015eko urtarrilean egingo dira. 13,8 milioi euroko inbertsioa egin da.

Eremu logistiko horretan, Bilboko Portua helmuga edo jatorri duten merkantziak Mesetako hinterlandean bildu ahalko dira, eta, hala, Bilbo jomuga duten tren osoen osuera prestatu ahalko da anezka-motako zerbitzu baten bidez.

TELOF de Pancorbo

En el mes de septiembre se iniciaron las obras de conexión ferroviaria y las vías de servicio de la Terminal Logística Ferroviaria (TELOF) que el Puerto de Bilbao está construyendo en Pancorbo (Burgos), dentro del desarrollo urbanístico integral del Polígono BilbaoPort que cuenta con cerca de 500.000 metros cuadrados de superficie. Está previsto que las obras de infraestructura de esta primera fase concluyan a finales de 2014, y en enero de 2015 se realicen las pruebas de funcionamiento de los equipos de seguridad instalados. La inversión asciende a 13,8 millones de euros.

Esta área logística permitirá concentrar mercancías con origen y destino en el Puerto de Bilbao desde su hinterland en la Meseta, lo que posibilitará configurar composiciones de trenes completos con destino a Bilbao mediante un servicio tipo lanzadera.



Cofinanciado por la Unión Europea
Red Transeuropea de Transporte (RTE-T)



1

Axpeko kaia sendotzea eta sakonera handitzea

Amaitu ditu Bilboko Portuko Agintaritzak Axpe (Bilboko Portuaren itsasadarreko kaltetako bat, Erandio parean dagoena) indartzeko eta haren sakonera handitzeko lanak. Egindako lanekin, inguruko industria-entresei (tamaina eta pisu handiko ekipo-ondasunak eraikitzen espezializatuak) zerbitzua ematen dieten barkuen funtzionamendu-eta atrakatzeko baldintzak hobetu egin dira.

3 metrotik 7 metrora handitu da sakonera; hala, tamaina handiagoko itsasontziak sar daitezke. Bestalde, ontziratu aurretik karga biltegitzeko erabiltzen den kaiaren azalera 2.300 m² handitu da; hala, 115 metroko ertz berria dago orain, eta 5.000 tonarainoko pisu hileko ontziek erabil dezakete.

3,4 milioi euro inbertitu dira lanetan, eta beste 400.000€, gero kaian zoladura jartzeko. Proiektu honek Europako Batzordearen finantziakoa jaso du, TEN-T 2012 programaren barruan; zehatz-mehatz, inbertsioaren %10.

Aumento de calado y refuerzo del muelle de Axpe

La Autoridad Portuaria de Bilbao ha finalizado las obras de aumento del calado y refuerzo de Axpe, uno de los muelles que el Puerto de Bilbao tiene en la ría de Bilbao, a la altura de la localidad de Erandio. Las obras optimizan las condiciones operativas y de atraque de los barcos que dan servicio a las empresas industriales de esta zona, especializadas en la construcción de bienes de equipo de importantes dimensiones y peso.

El calado de esta zona ha pasado de 3 a 7 metros, lo que posibilita la entrada de barcos de mayor porte. Asimismo, se ha aumentado la superficie de muelle en 2.300 m², destinada al almacenamiento de carga previo al embarque, asociada a una nueva línea de cantil de 115 metros, válida para barcos de hasta 5.000 TPMs.

En las obras se han invertido 3,4 millones de euros, a los que hay que añadir otros 400.000 euros destinados a la posterior pavimentación del muelle. Este proyecto cuenta con cofinanciación de la Comisión Europea dentro del programa TEN-T 2012, que aporta el 10% de la inversión.



Cofinanciado por la Unión Europea
Red Transeuropea de Transporte (RTE-T)

Portu Agintaritzaren inbertsioak Inversiones de la Autoridad Portuaria

Bilboko Portuaren Ingurumen Errendimenduaren Hobekuntza eta Eragiketa Eraginkorrak” proiektua, TEN-T 2012 deialdia
Proyecto “Operaciones Eficientes y Mejora del Rendimiento Medioambiental del Puerto de Bilbao”, convocatoria TEN-T 2012



2

Punta Sollana dikea luzatzea


Ontziratu gabeko produktu likido eta solidoen trafikoa sustatzeko bi ontzik batera atrakatu ahal izateko, eta, horrez gain, Iparraldeko olatuen efektuak murrizteko, Punta Sollana dikea, industrialdean dagoena, luzatzeko proiektua egiten ari da Portuko Agintaritzak. Gaur egun, dikeak 350 metroko atrakatzeko-lerroa du, eta, obra horien bidez, 680 metroraino luzatuko da.

Kontuan hartuta kondizio meteorologikoek obra asko baldintzatuko dutela eta betegarri-bolumen handiak behar direla, obra 2016ko erdialdean amaitzea aurreikusten da. Inbertsioa 41,2 milioi eurokoa izango da.

Prolongación del dique de Punta Sollana

Con el fin de permitir el atraque simultáneo de dos barcos para impulsar el tráfico de graneles sólidos y líquidos y, a su vez, reducir los efectos del oleaje del Norte, la Autoridad Portuaria lleva a cabo el proyecto de prolongación del dique de Punta Sollana, ubicado en la zona industrial. Actualmente, el dique dispone de 350 metros de línea de atraque, y las obras permitirán alargarlo hasta los 680 metros.

Dada la complejidad de la obra fuertemente condicionada por las condiciones meteorológicas y los elevados volúmenes de relleno necesarios para su ejecución, se prevé que finalice a mediados de 2016. La inversión asciende a 41,2 millones de euros.



3

4. RO-RO arrapala aldatzea

2013aren amaieran bukatu dira Bilboko Portuko 4. RO-RO arrapala aldatzeko obrak. Inbertsioa 2,4 milioi eurokoa izan da. Arrapala hori AZ3 kaiko RO-RO trafikorako baliatzen da.

Modificación de la rampa ro-ro número 4

A finales de 2013 han finalizado las obras de modificación de la rampa ro-ro número 4 del Puerto de Bilbao. La inversión realizada asciende a 2,4 millones de euros. Esta rampa da servicio al tráfico Ro-Ro del Muelle AZ3.



Cofinanciado por la Unión Europea
Red Transeuropea de Transporte (RTE-T)



AZ-2 eta AZ-3 kaien zolatze-lanak

AZ-2 eta AZ-3 kaien -Zierbenako kai-muturrari itsatsiak daude- zolatze-lana egiteko, 5,8 milioi euro inbertitu ditu Bilboko Portuko Agintaritzak. AZ-2 kaia ontziratu gabeko solidoetarako erabiliko da. AZ-3 kaia, berriz, merkantzia orokorrak eta zama higikorra kargatzeko eta deskargatzeko izango da, Bilboko Portuko erabilera-planaren arabera.

Pavimentación de los muelles AZ-2 y AZ-3

La Autoridad Portuaria de Bilbao ha invertido 5,8 millones de euros en la pavimentación de los muelles AZ-2 y AZ-3, adosados al dique de Zierbena.

El muelle AZ-2 está destinado a graneles sólidos, mientras que el muelle AZ-3 acoge mercancía general y carga rodante de acuerdo con el plan de usos del Puerto de Bilbao.



Gurutzaontzientzako hirugarren atrakalekua

2012ko urrian, Portuko Agintaritzak gurutzaontzientzako beste kai berri bat -Algortako kontradikeari erantsita joango da- eraikitze lanak hasi zituen. 2013ko ekainean hasi ziren atrakatzeko-lerroa osatzen duten hormigoi armatuzko zortzi kaxa jartzen, eta 2014ko urtarrilean amaitu da kaiko zabaldegirako betegarri orokorra. Kaxak, Portuan bertan eraikiak, 44 metro luze eta 15 metro zabal dira, 16 metroko euskarria dute, eta 7.700 tonako pisua, gutxi gorabehera.

Kai berriak 354 metroko atrakatzeko-lerroa eta, gutxienez, 12 metroko zingoa izango ditu. Obrek 13,8 milioiko aurrekontua dute, eta 2014ko maiatzean amaituko dira

Tercer atraque de cruceros

En octubre de 2012 la Autoridad Portuaria inició las obras de construcción del nuevo muelle de cruceros, adosado al contradique de Algorta. En junio de 2013 empezaron a colocarse los ocho cajones de hormigón armado que conforman la línea de atraque, y en enero de 2014, se ha finalizado el relleno general para la explanada del muelle. Los cajones, construidos en el interior del propio Puerto, tienen 44 metros de eslora, 15 metros de manga, 16 metros de puntal y un peso aproximado de 7.700 toneladas.

El nuevo muelle dispondrá de una línea de atraque de 354 metros y un calado mínimo de 12 metros. Las obras, cuyo presupuesto asciende a 13,8 millones, finalizarán en mayo de 2014.

Inbertsio pribatuak Inversiones privadas



Terminales Portuarias- Tepsak

tren-bazterbide berri bat eraiki du, produktu likidoak dituzten trenak kargatzeko eta deskargatzeko. Bazterbideak 384 metroko trenbide nagusi bat du eta 84 metroko trenbide osagarri bat. Bazterbidea eraikitzeko, 1,9 milioi euro inbertitu dira. Erreiaren luzera 936 m da kontzesioaren irteeraraino, eta han portuko trenbidearekin bat egiten du.

Terminales Portuarias - Tepsa

ha construido un nuevo apartadero ferroviario para dar servicio de carga/descarga a trenes con productos líquidos. El apartadero, que ha requerido una inversión de 1,9 millones de euros, tiene una vía principal de 384 metros de longitud y una vía auxiliar de 84 metros. La extensión de carril es de 936 metros hasta la salida de la concesión, para conectar con la vía general del Puerto.



Bahía de Bizkaia Gas (BBG)

2011ko irailean hasi zen gas natural likidotua metatzeko hirugarren tanga bat eraikitzen. Tanga horrek 150.000 metro kubiko metatzeko edukiera izango du. Obrak 97,5 milioi euroko inbertsioa du, eta 2014ean amaituko da.

Bahía de Bizkaia Gas (BBG)

inició en septiembre de 2011 las obras de construcción de un tercer tanque de almacenamiento de GNL (Gas Natural Licuado), que tendrá una capacidad de 150.000 metros cúbicos. La obra requiere una inversión de 97,5 millones y finalizará en 2014.



Compañía Logística de Hidrocarburos (CLH)

ekainean hasi zen Punta Sollana kaian 28.300 m²-ko lursaila prestatzeko lanak egiten. Lursail horretan, petrolio-produktuen terminal berria instalatuko du; 237.000 metro kubikoko edukierako 11 tanga izango ditu, eta bi fasetan egingo da. 16,9 milioi euroko inbertsioa egitea aurreikusten da. Instalazio hau portuko El Kalero eremuan CHLk dagoeneko duen instalazioari gehituko zaio, non 209.000 m³-ko biltegitratze-edukiera duen.

Compañía Logística de Hidrocarburos (CLH)

Comenzó en junio los trabajos de preparación de la parcela de 28.300 m² que ocupará en el muelle de Punta Sollana, donde instalará su nueva terminal de productos petrolíferos, que constará de 11 tanques con una capacidad de 237.000 m³ y que se realizará en dos fases. Con una inversión prevista de 16,9 millones de euros, esta instalación se suma a la que CLH ya dispone en el área de El Kalero del puerto, donde cuenta con 209.000 m³ de capacidad de almacenamiento.

Unión Naval Containers

ek 450 metro karratuko nabe bat eraiki du Zierbenan AZ-3 kaiaren atzealdean emakidan duen 5.000 metro karratuko eremuan, edukiontzia konpontzeko eta haien mantentze-lanak egiteko. Inbertsioa 400.000 milioi eurokoa da.

Unión Naval Containers

ha construido una nave de 450 m² en su concesión de 5.000 m² de la zona trasera del Muelle AZ-3 en Zierbena, con destino a la actividad de reparación y mantenimiento de contenedores. La inversión asciende a 429.000 €.

Combustibles Coatra

gas natural likidotuaren eta gas natural konprimatuaren gas-hornitegi bat instalatzen ari da, Zierbenan. 396.000 eurokoa da proiektuaren aurrekontua.

Combustibles Coatra

Lleva a cabo, en Zierbena, la instalación de una estación de servicio de gas natural licuado y gas natural comprimido. El proyecto cuenta con un presupuesto de 396.000 €.

Intermodalitatea eta Logistika Intermodalidad y Logística



Bilboko Portuko Agintaritzaren portu lehorren eta eremu logistikoen gaur egungo sarea hauek osatzen dute: Azuqueca de Henaresko portu lehorra (Guadalajara), Cosladako portu lehorra (Madril), Puerto Secoko (Burgos) Sociedad Promotora Villafría, Jundiz (Araba) -Servicios Intermodales Bilbaoport-en bidez-, Pancorbo (Burgos), PLAZA (Zaragoza) eta Nonduermas (Murtzia).

Edukinontzien %17ak trenea erabiltzen du

Portuko trenbide-trafikoak handitzen jarraitzen du, eta gero eta protagonismo handiagoa ari da hartzen. 2013an, 1,3 milioi tona sartu edo atera dira trenez Portuaren instalazioetatik. Merkantzia orokorraren %13,5 garraiatzen da trenez, eta edukiontzi-trafikoaren %17.

Tren-kopuruari dagokionez, 3.467 unitate pasatu dira portutik 2013an, hau da, aurreko ekitaldian baino 410 gehiago.

TRENBIDE-ZERBITZU BERRIAK

Servicios Intermodales Bilbaoport (SIBPort) sozietatearen egitekoa da trenbidez garraiatzea Bilboko Portua jatorri edo helmuga duten merkantziak. 2013an, SIBPort sozietateak Noaingo eremu logistikoarekin (Nafarroa) eta PLAZA izenekoarekin (Zaragoza) trenbide-

konexioak jarri ditu martxan.

Ekimen horri esker, zamaketariak astean behingo trenbide-zerbitzuak dituzte Bilboko Portutik Gasteiz, Burgos, Madril, Guadalajara, Sevilla, Zaragoza, Nafarroa, Bartzelona, Castelló, Valentzia eta Murtziara.

PORTU LEHORRAK ETA PLATAFORMA LOGISTIKOAK

Trafikoa handitzeko, Bilboko Portuko Agintaritzaren plan estrategiko berrian beharrezkotzat jo da intermodalitatea eta Bilboko Portuko Agintaritzak parte hartzen duen portu lehorren gaur egungo sarea sustatzea.

Hori dela medio, Administrazio Kontseiluak baimena eman du, batetik, Pancorboko (Burgos) Portuko Trenbide Terminal Logistikoa (TELOF) izango denaren

trenbide-konexioko sistemak eraikitzeko, eta, bestetik, ADIFen Zaragozako eta Nonduermasko (Murtzia) terminalak ustiatzen dituzten sozietateetan %10eko partaidetza izateko.

Bestalde, Bilboko Portuko Agintaritzak iragarri du Arasur (Araba) plataforma logistikoko 64.703 metro koadro hartuko dituela errentan, aurrerago erosteko eskubidearekin. Aldez aurretik, trenbide-azpiegitura bat bideratuko dute Eusko Jaurlaritzak, Arabako Foru Aldundiak eta Portuko Agintaritzak, orain ADIFen mende dagoen bidea eta Arasur lotzeko. Aurreikuspenen arabera, trenbide-zatia eraikitzeko proiektua 2014ko udaberrian bukatuko da, eta obrak egiten hasiko dira hortik aurrera.



Konexio berriak Nafarroarekin eta Zaragozarekin



En la actual red de puertos secos y zonas logísticas de la Autoridad Portuaria de Bilbao se encuentran el puerto seco de Azuqueca de Henares (Guadalajara), el puerto seco de Coslada (Madrid), la sociedad promotora Villafría – Puerto Seco (Burgos), Jundiz (Araba-Álava) a través de la sociedad Servicios Intermodales Bilbaoport, Pancorbo (Burgos), PLAZA (Zaragoza) y Nonduermas (Murcia).

El 17% de los contenedores utiliza el ferrocarril

El tráfico ferroportuario sigue al alza y alcanza cada año mayor protagonismo. A lo largo de 2013, 1,3 millones de toneladas han entrado o salido en tren de las instalaciones del Puerto. El 13,5% de la mercancía general utiliza este transporte, cifra que se eleva al 17% en el tráfico contenerizado.

El número de trenes ha sido de 3.467 unidades, lo que supone 410 unidades más que en el ejercicio anterior.

NUEVOS SERVICIOS FERROVIARIOS

Servicios Intermodales Bilbaoport (SIBPort) es una sociedad que tiene como objeto el transporte de mercancías por ferrocarril con origen o destino el Puerto de Bilbao. En 2013 ha puesto en marcha conexiones ferroviarias con las áreas logísticas de Noain, en Navarra, y PLAZA, en Zaragoza.

Con esta iniciativa, los cargadores cuentan ya con servicios ferroviarios semanales desde el Puerto de Bilbao con Vitoria, Burgos, Madrid, Guadalajara, Sevilla, Zaragoza, Navarra, Barcelona, Castellón, Valencia y Murcia.

PUERTOS SECOS Y PLATAFORMAS LOGÍSTICAS

Para incrementar los tráficos, el nuevo Plan Estratégico de la Autoridad Portuaria de Bilbao ve necesario impulsar la intermodalidad y la red de puertos secos en los que ahora participa.

En este sentido, el Consejo de Administración ha dado luz verde a la construcción de los sistemas de conexión ferroviaria de la que será la Terminal Logística Ferroportuaria (Telof) de Pancorbo (Burgos) y a la participación de la entidad, con un 10%, en

las sociedades explotadoras de las terminales de Adif en PLAZA (Zaragoza) y en Nonduermas (Murcia).

Por otra parte, la Autoridad Portuaria ha anunciado que adquirirá 64.703 metros cuadrados en la plataforma logística de Arasur (Araba-Álava), en régimen de alquiler y con derecho a una futura compra. El Gobierno vasco, la Diputación Foral de Araba y la propia Autoridad Portuaria desarrollarán, como paso previo, una infraestructura ferroviaria, que enlazará la actual vía dependiente de ADIF con Arasur. Se prevé que el proyecto constructivo de la parte ferroviaria concluya en la primavera de 2014 y, posteriormente, se procederá a la ejecución de las obras.



Nuevas conexiones con Navarra y Zaragoza



Plataforma telematikoaren hamargarren urteurrena Décimo aniversario de la plataforma telemática

Abenduan hamar urte bete dira, itsasontzien sartzte/irteerak (PIDE Geldialdien Prozedura Integratua) kudeatzen dituen **e-puertobilbao** plataforma telematikoaren lehen zerbitzua martxan jarri zenetik. Urte hauen zehar, zerbitzuen kopurua, konektatutako enpresak, egiaztatutako erabiltzaileak eta trukaturako mezuak apurka-apurka haziz joan dira eta gaur egunean, plataformak, hamar zerbitzu dauzka eta euren informazioa 320 enpresen bidez elkar trukatzeko dute.

Portu Agintaritzak lideratzen duen proiektu honek, zerbitzuak garatzeko bere eredurako, portu elkarteko enpresek osatzen duten Prozeduren Armonizazio Taldeak (GAP Bilbao) ezarritako arauak jarraitu ditu. Honela, komunikabideak optimizatzen dira eta itsas-portu inguruko enpresen arteko interakzioa errezten da. Hitz batez, portutik pasatzen diren itsasontzi eta merkantzien iragaitearen kudeaketan arintasun eta eraginkortasun handiagoa lortzen da, enpresak, eta oro har, portua, lehiakorragoak izatea lortuz.

En diciembre se ha cumplido el décimo aniversario de la puesta en marcha del primer servicio de la plataforma telemática **e-puertobilbao**, el de gestión de entrada/salida de buques (Procedimiento Integrado de Escalas-PIDE). A lo largo de estos años, el número de servicios, empresas conectadas, usuarios certificados y mensajes intercambiados ha ido creciendo paulatinamente y, hoy en día, la plataforma cuenta con diez servicios e intercambian su información a través de ella 320 empresas

El proyecto, liderado por la Autoridad Portuaria, ha seguido para su modelo de desarrollo de servicios las directrices marcadas por el Grupo de Armonización de Procedimientos (GAP Bilbao), formado por las empresas de la comunidad portuaria. De este modo, se optimizan las comunicaciones y se facilita la interacción entre las diferentes empresas del entorno marítimo-portuario. En definitiva, se consigue una mayor rapidez y eficiencia en la gestión del paso de buques y mercancías a través del puerto, logrando que las empresas y el puerto en su conjunto sean más competitivos.

GAURKOTZEAK

2013an zehar, plataformak eskaintzen dituen balio erantsitako zerbitzuak gaurkotzen eta bezeroen eskakizun berrietara eta gehien bat, geldialdien Prozedura Integratua (PIDE) eta Adierazpenen kudeaketan (EE-ko “European Single Window”, “e-manifest” eta “Blue Belt” ekimenak) eragina daukaten Europar Elkarteko lege aldaketetara egokitzen joan dira. Ekimen hauek itsasontzien sarrera/irteerarekin eta merkantzien aduana kontrolarekin -Europa barneko trafikoan- zerikusia daukan agiriaren kudeaketa erreztu nahi dute. Azken helburua administrazio gaiak erreztzea da, itsasoz garraiatzen diren merkantziek, errepidez edo trenez garraiatzen direnek daukaten agiri eta administrazio tratamendu eta aduana kontrol bera izan dezaten.

KORRIDORE INTERMODALAK

Gaur egunean garatzen ari diren zerbitzuen helburua, itsas zerbitzuak barne logistika terminalerako zerbitzuekin integratzea

ahalbidetzen duten korridore intermodalen garapena sustatzea da (Portu Sikuak).

Eraberrikuntzaren atalean, Garraioaren Europaz harako Sarearen Itsas Autobideen (TEN-T) proiektuak oztoporik gabeko europar itsas espazioa sortzeko kofinantziatzen duen Business to Motorways of the Sea (B2MOS) deritzon proiektuari hasiera eman zaio. Proiektu honetan, Bilboko Portuak, bost naziotako beste 21 bazkideekin batera parte hartzen du, euren artean, Hamburgoko Portua (Dakosy plataformarekin), Erresuma Batuko Portuak eta MCP (Erresuma Batuko 127 porturi zerbitzuak eskaintzen dizkien plataforma telematika) daudela.

Era berean, Portu Agintaritzak, Bilboko portua hinterland/foreland-ekin lotzen duten tren zerbitzuei laguntzeko zenbait zerbitzu telematiko garatzen ditu. Ekimen hau, “IBUK-Korridore Intermodala” deritzon Proiektuaren barruan dago -2011ko TEN-T deialdia-

ACTUALIZACIONES

Durante 2013, los servicios de valor añadido prestados por la plataforma han ido actualizándose y adaptándose a nuevos requerimientos de los clientes y a cambios legislativos de la Unión Europea que afectan, sobre todo, al Procedimiento Integrado de escalas (PIDE) y a la gestión de Manifiestos (iniciativas “European Single Window”, “e-manifest” y “Blue Belt” de la UE). Estas iniciativas van encaminadas a facilitar la gestión documental relacionada con la entrada/salida de buques y con el control aduanero de mercancías en el tráfico intraeuropeo. El objetivo final es la simplificación administrativa, para que las mercancías transportadas vía marítima tengan el mismo tratamiento documental, administrativo y de control aduanero que las mercancías transportadas por carretera o ferrocarril.

CORREDORES INTERMODALES

En la actualidad, los servicios en desarrollo van encaminados a potenciar el desarrollo de corredores intermodales que posibiliten la integración de servicios marítimos con servicios

en terminales logísticas de interior (Puertos Secos).

Dentro del apartado de innovación se ha iniciado un proyecto, Business to Motorways of the Sea (B2MOS), cofinanciado por el programa de Autopistas del Mar de la Red Transeuropea de Transporte (TEN-T) para la creación de un espacio marítimo europeo sin barreras. En este proyecto el Puerto de Bilbao participa junto a otros 21 socios de cinco países, entre ellos el Puerto de Hamburgo (con la plataforma Dakosy), Puertos del Reino Unido y MCP (plataforma telemática que presta servicios en 17 puertos del Reino Unido).

Asimismo, la Autoridad Portuaria desarrolla una serie de servicios telemáticos de apoyo a los servicios de ferrocarril que unen el Puerto de Bilbao con el hinterland/foreland. Esta iniciativa se encuadra dentro del Proyecto “IBUK-Corredor Intermodal”, convocatoria TEN-T 2011





Azken helburua
administrazio gaiak
erreztea da



El objetivo final
es la simplificación
administrativa



PORTU-LOGISTIKA ELKARTEKO ENPRESEK ERABIL DITZAKETEN ZERBITZUAK:
SERVICIOS DISPONIBLES PARA LAS EMPRESAS DE LA COMUNIDAD LOGÍSTICO-PORTUARIA:

1. Itsasontzien sarrerak eta irteerak kudeatzeko sistema integratua (PIDE).
Servicio integrado de gestión de entradas y salidas de buques (PIDE).
2. Merkantzia arriskutsuen kudeaketa zerbitzua. Servicio de gestión de mercancías peligrosas.
3. Adierazpen laburren kudeaketa zerbitzua. Servicio de gestión de declaraciones sumarias.
4. Zama agirien zerbitzuak. Servicios de manifiestos de carga.
5. Muga Ikuskapen Postuan (PIF) Edukinontzien jartzea koordinatzeko sistema.
Servicio de coordinación del posicionamiento de contenedores en el Puesto de Inspección Fronterizo (PIF).
6. Errepidezko garraioa portuko sarrerako kontrolera doala ohartzen duten aurreabisu zerbitzuak eta terminaletakoa ateen kudeaketa.
Servicios de preavisos de entrada de transporte por carretera al control de entrada al puerto y gestión de puertas de terminales.
7. Zama zerrenda edo esportazio papelik gabeko irteera. Lista de carga o levante sin papel de exportación.
8. Onartu eta emate zerbitzua. Servicio de admítase y entréguese.
9. Sarrera Adierazpen Laburraren Kudeaketa Zerbitzua (ENS). Servicio de Gestión de la Declaración Sumaria de Entrada (ENS).
10. Irteera Adierazpen Laburraren Kudeaketa Zerbitzua (EXS). Servicio de Gestión de la Declaración Sumaria de Salida (EXS).



EMAS ziurtagiriaren bila A por la certificación EMAS



Kalitatearen, Prebentzioaren eta Ingurumenaren Kudeaketa Sistemak aldatzen jarraitzen du, eta gero eta gehiago ari da finkatzen Bilboko Portuko Agintaritzaren prozesuen kudeaketan. 2013an, mantentze-lanen 31 barne-ikuskapen eta 5 kanpo-ikuskapen egin dira, eta erakutsi dute etengabeko hobekuntzara bideratutako sistema bat dagoeneko ezarrita dagoela ikuskatutako eremu guztietan.

Bestetik, Portuko Agintaritzak Prebentzioko OHSAS 18001 ziurtagiria (2007an berritua) eta Kalitateko ISO 9001 ziurtagiria (2001ean lortua) berritu ditu. Bi ziurtagiriak “Logistika integrala kudeatzea eta portuko zerbitzuak ematea” arlokoak dira.

Prebentzioari dagokionez, istripu-tasa baxuak, arriskuak kontrolatzeko adierazle egokiek (desadostasun-kopurua, etab.) eta barne-ikuskapenen emaitza onek laneko segurtasuna eta osasuna kudeatzeko sistema heldu eta sendo bat dugula nabarmentzen dute.

Kalitateari dagokionez, sistema eraginkorra da

enpresa kudeatzeko eta ziurtagiriaren alorreko bere jarduerak etengabe hobetzeko, prozesuen adierazleen emaitzen arabera.

INGURUMEN-ERREFERENTZIA

Portuko Agintaritzak, zeinak ISO 14001 ziurtagiria lortu baitzuen 2011n, EMAS ziurtagiria (Eco-Management and Audit Scheme edo Ekokudeaketaren eta Ekoikuskapenaren Europako Araudia) lortzeko helburua jarri du. EMASa Europar Batasunaren borondatezko araudi bat da, eta ingurumena kudeatzeko sistemaren bat ezarri duten eta etengabe hobetzeko konpromisoa hartu duten erakundeak aintzatesten ditu. Konpromiso hori egiaztatzeko, ikuskaritza independenteak egiten ditu.

Hala, Bilboren helburua da erreferentzia-portua izatea ingurumenari dagokionean, eta aukera izatea “Green Corridors” direlakoak -itsas garraioiko distantzia txikiko zerbitzu jasagarriak garatzera bideratuak- sustatzeko Europar Batasunaren politikari atxikitzeko. Araudiari atxikitzeak ekar ditzakeen abantailak hauek dira: ingurumenaren kalitate oneko kudeaketa, ingurumen-legedia be-

etzen dela ziurtatzea, kostuak murriztea (energia- eta ur-kontsumoak, adibidez), enpresa eta erakundeekiko harremana laguntzea (adibidez, EBk laguntzak eta diru-laguntzak lortzeko aldeko argumentutzat jotzen du), bezeroekiko irudia hobetzeak sortzen dituen lehiakortasun-abantailak izatea (negozio-aukera berriak), langileak motibatzea, portuko komunitatea ingurumenari buruz sentsibilizatzeko elementu eragilea izatea, etab.

Horrez gainera, aurten, Estatuko Portuen kalitate-erreferentzial generikoen berrikusketa egin da Bilboko Portuaren eta portuko komunitatearen beharretara egokitzeko, eta, horren ondorioz, Bilboko Portuaren erreferentzial espezifiko berriak argitaratu dira, 2014an aplikatu behar direnak.

Azkenik, aginte-koadro integraleko ekimenak eta adierazleak eguneratu dira, Portuko Agintaritzaren Plan Estrategikoan identifikatutako helburuak eta jarduera-ildoak sartzeko, aginte-koadro integrala izan dadin plan estrategikoa ezartzeko eta haren segimendua egiteko erreferentzia-tresna.

El Sistema de Gestión Integrado de la Calidad, Prevención y Medio Ambiente (SGI) sigue evolucionando, consolidándose cada vez más en la gestión de procesos de la Autoridad Portuaria de Bilbao. A lo largo de 2013, se han llevado a cabo 31 auditorías internas y 5 externas de mantenimiento, que muestran un sistema encaminado hacia la mejora continua que ya está implantado en todas las áreas auditadas.

Por otra parte, la Autoridad Portuaria ha renovado la certificación OHSAS 18001 en Prevención, obtenida en el año 2007, y la certificación ISO 9001 en Calidad, obtenida en 2001. Ambas certificaciones están centradas en el ámbito de la “Gestión de la logística integral y la prestación de servicios portuarios”.

Respecto a la prevención, la escasa accidentabilidad, junto a los buenos indicadores de control de riesgos (número de no conformidades, etc.), así como los buenos resultados de las auditorías internas, evidencian un sistema de gestión de Seguridad y Salud en el Trabajo (SST) maduro y consistente.

En relación a la Calidad, el sistema se muestra eficaz para la gestión de la empresa y la mejora

continua de sus actividades conforme al ámbito del certificado, según se evidencia en los resultados de los indicadores del desempeño de los procesos.

REFERENCIA MEDIOAMBIENTAL

La Autoridad Portuaria, que consiguió la certificación ISO 14001 en 2011, se ha fijado como objetivo lograr la certificación EMAS (Eco-Management and Audit Scheme, o Reglamento Comunitario de Ecogestión y Ecoauditoría). El EMAS es una normativa voluntaria de la Unión Europea que reconoce a aquellas organizaciones que han implantado un Sistema de Gestión Medioambiental (SGMA) y han adquirido un compromiso de mejora continua, verificado mediante auditorías independientes.

De este modo, Bilbao se fija como objetivo ser un puerto de referencia desde el punto de vista medioambiental, susceptible de acogerse a la política de la Unión Europea de promoción de los “Green Corridors”, destinados al desarrollo de servicios sostenibles de transporte marítimo de corta distancia. Las posibles ventajas que se derivan de la adhesión al reglamento son: una gestión medioambiental de calidad, el

aseguramiento del cumplimiento de la legislación medioambiental, una reducción de costes (consumos de energía, agua...), favorecer la relación con empresas e instituciones (por ejemplo, la UE lo considera un argumento favorable para la consecución de ayudas y subvenciones), ventajas competitivas derivadas de la mejora de imagen de cara a los clientes (nuevas oportunidades de negocio), motivación de los empleados, elemento tractor en la sensibilización medioambiental de la comunidad portuaria, etc..

También este año se ha llevado a cabo el proceso de revisión de referenciales de calidad genéricos de Puertos del Estado para adecuarlos a las necesidades particulares del Puerto de Bilbao y la comunidad portuaria, lo que ha llevado a la publicación de los nuevos Referenciales Específicos del Puerto de Bilbao, de aplicación a lo largo del 2014.

Finalmente, se han actualizado los objetivos, iniciativas e indicadores del Cuadro de Mando Integral (CMI) para incorporar los objetivos y líneas de actuación identificadas en el Plan estratégico de la Autoridad Portuaria, de manera que el CMI sea la herramienta de referencia para la implantación y seguimiento del Plan.



Helburua “Green Corridors”
en parte izatea da.



El objetivo es formar parte
de los “Green Corridors”

